

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

OKONDOKO UDALA

Hasierako onarpena ematea hainbat zerga eta tasa ordenantzaren aldatetari

Udalbatza honek, 2016ko urriaren 27an egindako osoko bilkuran, hasierako onarpena eman die zerga ordenantza hauei:

Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga arautzen duen zerga ordenantza. Ibilgailu historikoek hobaria izango dute.

Zabor bilketaren tasa arautzen duen ordenantza. Hobaria izango dute gai organikoen bilketa areagotu eta gainerako hondakinen sorrera murriztu dutenek.

Jendaurrean jartzen dira hogeita hamar egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten espedienteak aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko; erreklamaziorik aurkezten ez bada, behin betiko onartutzat joko dira.

Okondo, 2016ko urriaren 28a

Alkatea

SERGOTATO EGUREN